


74R

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

296n. zenbakia
bagilla 2004



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



DON ANES
ARRINDA ALBISU
(+ 2004 - 05 - 19)

EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN BATZORDEA (2004-01-29)

Lendakaria: Olazar eta Uribe'tar Martin
Lendakari-ordea: Barroeta eta Amorroto'tar Klaudio.
Kudeatzaillea: Fernandez eta Ruiz de Eskide'tar Karmele.
Idazkaria: Atutxa ta Agirre'tar Paul
Maikoak: Egurrola'tar Iñaki
 Solozabal'dar Paulin
 Malaxetxebarria'tar Jon
 Ormaetxe'tar Emilio

ELEIZAREN EDESTIA EUSKERAZ

GURA DOZU IRAKURRI ELEIZEAREN EDESTIA EUSKERAZ?

Bixente Letiegi'ren liburuak eskatu egizuz:

- I.- Apostoluen eta martirien denporako Eliza.
- II.- Elizak eta estaduak bat egin zuten denporako Eleiza.
- III.- San Ignazio'ren denporako Eliza.
- IV.- Denpora barrietako Eliza.
- V.- Demokraziaren denporako Eliza.
- VI.- Denpora auetako Eliza.
- VII.- Euskal kristautasunaren sorkuntza.
- VIII.- Euskal kristautasunaren sendokuntza.

IX.- Euskal kristautasunaren zabalkuntza.
Liburu bakoitxa 500 orrialde inguru dira.

Ordaiña: Bakoitxa sei euro.

Baiña irakurri nai ba'dozuz eta ezin erosi, egizu berba geugaz. Doan emoteko be gertu gagoz, fedea indartzeko ta euskerea zabaltzeko eta irakurtekotan.

Eskatu: Martin Olazar

XXIII Jon Z. enparantza 2.

48100 Mungia - Bizkaia

Tel: 94 674 01 23

ZER-BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ ALDIZKARIA

Egillea: "Euskerazaleak"
Kudeatzaillea: Fernandez'tar Karmele
Idazkola: "Euskerazaleak"
Zuzendaria: Olazar'tar Martin (Euskerazaintzakoa)
Idazleak: Atutxa'tar Paul (Euskerazaintzakoa)
Arrinda'tar Anes (Euskerazaintzakoa)
Aldalur'tar Justine
Egaña'tar Gotzon
Solozabal'dar Paulin (Euskerazaintzakoa)
Martiaru'tar Iñaki
Latiegi'tar Bixente (Euskerazaintzakoa)

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

OKERKERIAK (BUSH)

Aspaldion gure mundua oso nastatuta ikusten dogu: Iraillaren lln. eguneko erasoak negargarria izan zan USA´n eta orrek ekarri eban Afganistan eta Irak´eko guda ikaragarria eta ondoren lez, Madrid´en izan zan sarraski negarraria.

Baiña zer dago or danaren barruan?

Gure Europa,USA ta Asia´ren artean kultura oso ezbardin bi agiri dira, kristiñauena eta islan-zaleena.Erlejoñoa barruan doa eta bide-argitzaille izan bear leuke, baiña ez da erlejiño-arazoa, jakintza-arloa ta ekonomiarazoa baiño.

Munduan laterri aberatsak eta erri txiroak bizi dira, aberatsen artean USA daukagu eta txiroen artean islandarrak, oneik ez aberastasunik ez daukelako,sarritan arrorioa ugari izaten dabe, euren kultura mailla orretatik urten-eziñik dagoalako baiño.

Giro ori lenagotik agertzen da Israel´darren eta palestindarren artean eta or dagoala dirudi islandarrak egiten dabezan erasoan oiñarriak.

Lenengo erasoaren ondoren garratza izan daben USA´tarrak ez dabe jakin egin bear dan azterketa eginen.

Euren uste bakarra, besteak txarrak dirala da eta euren erantzuna, gaizto orreik guda eginda menperatu bear dirala.

Agintaria daben Bush´ek gogotsu asmau eta entzun dau gudarako dei au eta bizitasun bardiñagaz entzuten dabe islandarrak guda santurako deia. Baiña ortxe dago

okerrik aundiena: Guda ez da konponbidea, gudak guda dakar eta ilketak ilketa. Eta onaigiño eldu gara!

Beste azterketa bat egin bearra dago.

USA´tar aurreratuak eta aberatsak emon begie euren laguntza trebe-arloetan eta diru-arloetan, beste laterri atzeratuai, izkilluak, armak, egiten eralgiten dabena, eralgi begie erri atzeratuen aurrerapena billatzen, baiña arrokeri barik! Ortik etorriko da bakea.

España´tarrak naikoa arin ulertu dabe arazoa eta auteskundeak be orduantxe etorri diran lez, agintari guda-zalea, Azores´eko kidea, Bush´en laguna, kendu egin dabe. Ori egin bear dabe USA´tarrak be, ainbat lasterren Bush kendu.

Eta Angland-errian be arazoa aztertu egin bearke dabe euren Blaer ori guda alboratzeko eta alkar-izketearen bidera sartzeko egokia dan ikusteko.

Auteskunda orretarako izaten da, erriak egokia ez dan agintariari eskubidea kendu eta egokitzat dagon bateri emoteko.

Eta Rodriguez Zapatero lengoa baiño ohea izango ete da?

Oraingoz ohea dirudi, datorren urtean zalantza geiago izango da eta laugarren urterako berau be bear ba´da, kendu-bearrekoa. Oraingoz itxaropen apur bat.

OLAZAR´tar Martin´ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk´ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

ERBESTETIKO BIDEZ-BIDE- IBILTZALE ZARRAK EUSKADI-ZEAR

Ez dut noski gauza berririk esango, antziñako liburu zarren maitale naizela esaten ba'dut.

Orra ba: liburu zar batzuen artean, oso atsegin izan zaidan bat agertu zait begien aurrera. Ez da ain zarra liburu ori. «Viajeros por Alava» deritza. 1972'an izan zan Julio-César Santoyo'k Gazteiz'en argitaratua. Baiñan naiz ain zarra izan ez, antziñako ibiltarien berri damaigulako zaigu ain jakingarria.

Liburu orrek aurrena aurkezten digun bidalaria, XV mendean lenen urteetako da. Ondo gizon ezaguna: Iñigo López de Mendoza, Santillana'ko markesa, alajaña ¿Atzerritarra? Bai, ta ez. Euskotarra izan zan odolez. Araba'ko Mendozaren sendikoa. Baiñan jaiotzaz, –Palentzi'ko Carrión de los Condes izeneko urian etorri bait zan mundura–, eta ezikeraz eta gogoz zearo atzerritarra, Gaztela'ko erregeen esanera ibilli zan Diego Hurtado de Mendoza Hita ta Buitrago'ko Jaunaren sema izan zalako. Bera ere II Juan erregearen alde batzuetan eta beste batzuetan aurka, Gaztelerriko politikan sarutrik ibilli zitzaigun. Sartu zan moroen aurkako guduetan ere, ta Olmedo'ko borrokaldian ainzuzen irabazi zituan Erregeagandik Marques de Santillana eta conde del Real de Manzanares titulo bikaiñak.

Ez dakigu noiztik, baiño Señor de Salvatierra, ots, Aguirain'go Jaun ere izan zan. Ori ere, nola ez? Gaztela'ko erregearen esku zabalari eskerrak.

Kultura aundikoa ta «umanista» edo gizakuntza-zale bikaiña izan zan. XV mendean, gaztelera, idalerik eta batez ere olerkaririk onenetakoa.

Era berean izan zan gure Eneko «umorista» edo «oro-irriñoiz-ikus-zalea», liburu bati ipiñi zion izenak adierazten dauenez: «Refranes que dicen las viejas tras el fuego».

¿«*Tras el fuego*»? Suaren atzean? Bai adiskide, bai. Suaren atzean. Gaur, sua, gure etxeetan ormaren ondoan egon oi da. Baiñan entzunik egongo zera, len gure baserrietan sua sukaldearen erdian egon oi zala. Agureak, eta amona zarrak bereiziki, suaren eta suaren atze-aldeko orma bitartean eseri oi ziran toki ura epelagoa omen zalako: «tras el fuego»: «suaren atzean».

Ba orrelakoak ziran gure Markesak V mendean ezagutzen zituan landa-etxeetako sukaldeak. Beraz ederki esanik utzi zuan: «*refranes que dicen las viejas tras el fuego*».

Guri, orain, bere «10 Serranilla'tatik bat bereiziki ajola zaigu: 1425'ean idatzi zuana, bertan ematen bait dizkigu orduango Araba'z albiste bitxi batzuk:

Ona «Serranilla» edo «Mendilarreko» orren lenen lau itz-neurtuak:

Gazteiz'tik ninjuan
aste ontako egun batez
Dulantzi'ra igaro naiez;
antxe neska giputz bat ikusi nuan.

(*De Vitoria me partía
un día desta semana
para me pasar a alegría
do vi moza lepuzcana*).

Mottela irudiko zaizu noski bertso euskerazko itzulpenean, gaztelera aldean. Ez zazu aztu olerkiak duan graziaren erdia galtzen duala beste izkuntz batera igarotzean. Olerki baten graziarik geiena, sortua izan dan izkuntzaren dotoretasunaren arauara egoki eratu izatean bait dago. Grazi ori, ordea, beste izkuntza batera igarotzerakoan zearo galtzen du.

Grazi ori sortu izan dan izkuntzaren izpiriturik at ez galtzeko, izkuntza berriko izpirituaren araura izan bearko luke idatzia, baiñan orduan ez litzake olerki aren itzulpena izango, aren itxurako olerki berri bat baizik.

Toponimiari dagokionez iru izen damaizkigu lerro oietan Mendoza'ko Eneko Santillana'ko Markesak: VITORIA, ALEGRIA, LEPUZCANA.

VITORIA esaten dio orain euskeraz Gazteiz esaten diogun uriari, ¿Gaztelera dagoalako? Ez dut uste. XV mendean Iñoiiz Gazteiz bat izan zanik iñor oroitzen ez zalako baizik. Bitori ez da Gazteiz. Gazteiz, Araba'ko Zelaiaren erdiko muñotxo batean, Bitori sortu aurretik zegoan basuritzo bat zan. An «in vico qui dizitur Gasteiz, condimus NOVAN VICTORIAM», edo –dokumentua eskuetan ez daukat eta–, orrelako zerbait idatzi zuan onen sortzaileak, VII Santxo gure erregeak: Gazteiz deritzan erriskan sortzen dugu VITORIA BERRIA».

Orduan il ziran Gazteiz izeneko erriska eta erriarekin batera bere izena ere bai. Arrezkero Bitori da. Orrela, Bitori izen euskalduna dalako: V'z baiña B'z bear du izan idatzia.

VII Santxo'k GASTEIZ idatzi zuan. Baiñan S ori gure latinezko eta erromantzezko dokumentu zarretan ez da bate-re fidagarria. Euskeraren Z'k oso doiñu berezia du; euskal erri batzuetan beste batzuetan baiño geiago, baiñan geiago edo gutxiago, danetan S'aren doiñura alderatzen dana. Orregaitik askotan gure Z lumalari zar aiek gure S idatzi oi zuten.

Izan ere, gaztelerrialdeko lumalari erdalduen belarrietzat «Gasteiz» itz goxoagoa da «Gasteiz baiño. Alderantziz, xamurragoa da euskaldunon belarrietzat Gazteiz, Gasteiz baiño.

Sabin Arana'ren ondorengo euskal-birjaiotzako idazle bikaiñentzat Gazteiz izan zan Araba'ko uri nagusiaren izena, Arantzazu-osteko Euskaltzaindi txepel onek Santxo gure Erregearen XII mendeko dokumentu zarreko S ura berbirtu duan arte: Gasteiz.

Nere ustez, Gasteiz obeto dago, batez ere, Imanol Lekuo-na agurgarriak uste izan zuan bezala «GASTEIZ» izena «gaztelu» itzetik datorrela egian izan daitekela: Gazteiz=¿Gaztel(u)-Aitz?

Garrantzi aundiagokoa da gure Santxo «Jakintsuak» «Novam Victoriam» idatzi zuanean Bitori'ri erantsi zion «Nova», «Berri», adejetibu edo izenondokoa. Zergaitik?

– Orrek, Santxo Erregeak Bitori Zar bat ezagutzen zuala esan nai dualako ¿Ori nere uste utsa besterik ez dala? Ez ba. Urteak geroago ere Novam Victorian esaten bait zaio gure uri polit oni. Bi Bitori ziran beraz Erdiaroko Euzkadi'n BITORI ZARRA eta BITORI BERRIA. Ori ere dokumentuz ongi ziurturik dago.

– Rada'ko Errodrigo Jimenorena Toledo'ko Goigotzai edestilari arras jakintsuak. Gaztela'ko Alfontso batek Naparroa'ra sartuta arrapatu zituan urien berri ematerakoan Bitori izeneko bi uri aipatzen ditu latini elegantez idatzi zuan bere «*De Rebus Hispaniae*» edesti-liburu ospetsuan: Bost edo sei uri aurrena; gero, aien ondorean, Victoria bat (nere Bitori Zarra espairik gabe); orren atzetik beste bost edo sei uri eta bealaxe NOVA VICTORIA bere «nova» izenondokoa ta guzti, eta orren atzetik uri batzuk, orrela Gatela'ko Errege Alfontso'k, bi une aietan Naparroa oso era larrian aurkitzen zalaz baliatuz.

Bi izan ziran izen ortako errege gaztelarrak Naparroa'ra koldarki sartu ziranak: VI Alfontso, Naparroa'ko IV Santxo Gartziarena bere senideek, 1076'ean, LAN izeneko Arkaitzetik amilduz erail zutenean, Naparroa erregerik gabe geratu zanean, eta, VIII Alfontso 110'en bat urte geroago, Naparroa'ko VIII Santxo, – zergaitik edo zertarako, iñork ez daki–, Afrika'ra joan zalarik, ostera Naparroa erregerik gabe aurkitu zanean.

Bi Alfontso oietatik, zein izan zan guri orain ajola zitzaiguna ez naiz ziur oroitzen, ebakuntza larri mingarri baten ondorean oraindik etxetik irtetzeko gauza ez naizelako, ez bai daukat begien aurrean Rada Toledo'ko Goigotzaiaren idazkia, baiñan etxetik irtetzeko gai biurtzen naizenean billatuko dut dokumentu ori, eta, emen, ZER'en, osoa argitaratuko dut.

Dana dala, argi utzi dugu Erdiaroko Euzkadi zarrean bi izan zirala BITORIA izena zeramaten uriak. Araba'r biak.

Baiña askoz zarragoa da, oraindik, BITORIA izena Naparro'an bertan: Naparroa'ren baztarrak euskaldunean ainzuzen, an Iruña ta Auritz (Burgete) bitartean erromatarrek BITURIGES izendatu zituzten Baskoni'ko klan edo sendi bateko gizakume batzuk, an bizi zirenak Kristo jaio aurretik ere.

«Bituriges» izenondoko politik BITURI'koak esan nai du. Ta BITURI ta BITORI izen bat bera diarala neri ukatuko didanik ez dut uste iñor munduan izango danik.

– Baiñan Garona ibaiaren egoaldean, Bordele'tik bertan, ots, Akitani zar euskaldunean beste BITURIGES batzuk bizi zirala dioskute erromateko edestilariak. ¿Naparroa'n bizi ziran aien aideak? Baietz esango nuke nik. ¿Nongoak izan ote ziran bizi-tokiz aldatu zutenak? ¿Angoak, onera etorritz, ala emengoak ara joanez? Nik Naparroa'koak izan zirala Akitani'ra joan ziranak esango nuke, Akitani'n ez bezala, Egoaldeko gure Euskalerra ontan, jende geiegiren erruz, emigraketa, bear-bearrezko arazoa izan bait zaigu beti.

– VICTORIAKO, aipatu dezaidaket norbaitek, Legobigildo Errege bisigotak eraiki zuan Araba'ko gaztelu ura, Araba'ko gure VITORIA beber-bera dala esanez.

Ta zer? Ori orrela ba'litz ere, orrek ez du latini idatzitako VICTORIAKO orrek BITORI euskerazko gure Bitori ez danik esan nai, berta «KO» idazkiak aski argi ipintzen duan bezala.

Baiñan ala-ta-guztiz, ori, orrela ez dala esango diot: ots, Victoriako ura Bitori ez dala, Legobigildo sekulan Araba'ra

sartu ez zalako. Au ez dizu gaur iñork ukatuko, Bitori'tik urbil Zadorra ibaiaren ibarrean, dagoan Aldaieta'ko (VI eta VII mendeetako) illobitegi oparoak argi utzi duan gauza dalako. Bertan agertu zaigun izkillu ta tresnedi txit ugaru ta aberatsean oro bait da iparraldekoa, frankiarra, akitaniarra bereiziki. Ezer ez bisigotiar aztarnakoa izan daitekeanik.

Leobigildo'ren Victoriako ori Errioxa'n zegoan, naiz gaur Burgos'ko probintzian egon, oraindik Viloria de La Rioja izen duan erriskan, an bai, euskaldun autrigoitarrena izandako lurretan ibilli bait zan Leobigildo gure Asaben aurka borrokan.

Victoriako orren egiazko izena, VILORIAKO bear zuan. Baiña latiniñez mintzatzen ziran kulturazko bisigot aiei Viloriako'k ezer esaten ez zien bezala, asko ta oro gozoa bait zan VICTORIAKO'k esaten ziena, naiz itzaren euskerazko atzizkia gorde itxura aldatuz, Viloriako idatzi bearrean VICTORIAKO idatzi zuten. Pozik gaiñera!

¿Izki bat bakarrik aldaturik Biloria ta Bitoria izen bat bera ote dira? Bada Biloria geiagorik Euskalerrian. Bat Araba'n bertan. Bestea Naparroa'n; Lana izen-duan aran basati polit zoragarrian.

Ez dut BITORIA'ren etimologiarik ezagutzen. Edozein moduz ere, etimologi orren billa Biloria'ren etimologiatik asi bearko litzekeala iduritzen zait.

DULANTZI. ALEGRIA esaten dio Iñigo Markesak. Ez nere iritiz okerki esana. Alegia esango bait zion seguruaski mundu guztiak Araba'ko Zelaiean dagoan erri orri XIV mendea. Dulantzi azturik zegoan itza izango zan.

Izen ori erromatarrek sortua da, oiturazko zuten bezala, bertan entzun zuten izen euskalduna latiniñeratuz. Ez dakigu ordea izen ori euskaldunen ezpafiñetatik zintzo entzun zuten.

Duarte, D'Uarte, De Uarte; Duhalde, De Ugalde; eta Durruti D'Urruti, De Urruti diran bezala Dulanzi, D'Ulantzi, de Ulantzi dala dirudi. Danadala, bere etimologiaren billa, oraingoan ere, ULANTZI aztertuz asi bearko genuke.

LEPUZCANA. Guipuzcoana esan nai duala dirudi, «Gipuzkoa»ren aurretik. Lipuzkoa edo Lapuzkoa izan bait zan gure lurralde orri Erdiaroan eman zitzaion izena. Erromatekoan oraingo Gipuzkoa ia osoa, Barduli izeneko lurraldearen barruan egon zan.

Baiñan markesak ikusi zuan neska gazte ura Giputza ba'zan zer ari zan Araba'ko Zelaiaren barruan? Ori argitzeko, ikus dezagun aztertzen ari geran «Serranilla»ren jarraipena:

Entre Gaona y Salvatierra
en ese valle arbolado
donde s'aparta la sierra
la vi guardando ganado,
tal como el albor del día,
En su hargante de grana
qual tod'omo la querría
non vos digo por hermana.

– Gona gorritz jantzita artzaintzan, Gaona ta Salvatierra arteko «aran zugaitz artan» ikusi zuan gure Markesak ain atsegiña gertatu zitzaion neska gazte ura.

Gaur, aran artan ez da zugaitzik. Dana da an nekazaritza-kor lurra. Oso lur aberats emankorra, baiñan oro lur gorria.

¿Giúzkoa'tik etorri ote zan bere ardiekin neskatil eder ur? Ez. Neskatil ura ez zan giputza.

ARAZOAK

Artzaintzan ari zan larre aietatik bertan ba zan GIPUTUZURI izeneko uri bat aski mendi-tartera sartutako arrantxo batean. Zutik dago oraindik erri zar artako parroki izan zan eliza.

Izena berak adierazten digun bezala, Gipuzkoa'tik joandako jendeek eraikitako erria zan ura. ¿Zer ziran giputz aiek? Artzaiak? Ikazkiak? Burnigilleak? Nork jakin.

Dandala Giputz-Uri artakoa zan markesak ardi zaintzen ikusitako «moça lepuzcoana» maitagarri ura.

Bi toki izen ikusi ditugu olerkiaren zati ontan: GAONA ta SALVATIERRA.

– GAONA, gaur Gauna esaten zaion erri txiki bat da. Dokumentu zarretan Garona ere maiz esan. Antziña Euskalerraren ipar-muga zegian ederraren izen bera. GAR-ONA. «Ona» ugaritasuna adierazten duan atzizki euskaldun bat da ¿Zer ote da «Gar»? GAUNAK («Las Gaunas») Logroño Uriko auzo bati esan oi zaio.

– SALVATIERRA, euskeraz AGURAIN da eta orrela izan da beti. Eta ziur nago orrela esaten ziola XIV mendea euskalerrri guztiak ere. Agurain ez bait da erromatarrek mol-datutako izena Dulanzi bezala errez aztu zitekeana.

Orain-oraingo gertakizun bat dator kit burua. Egun asko ez dirala esan zigun ba sasi-jakintsu batek, Biasteri Errioxa'ko uriaren euskerazko izena ere, emendik aurrera Laguardia izan bear zuala. Ori zergaitik? noizbait inguru artako bide bati «Laguardi-Bidea» esan omen zaiolako. Lekuko baten lekuko-

tza ez da sekulan sententzi bat eman aal izateko naikoa izan. Edestiak eraspen geiago merezi du; eta edestia-zear, naiz dokumentu idatzirik izan ez, agoz-agozko jakintzari eskerrak Laguardia'ren euskerazko izena BIASTERI dala uste izan da.

Biasteri'ko «Laguardia-bide» orren antzeko zerbait badugu Bitori'n ere. Uri onen egoaldeko bide batek oraindik «Salbatierra-bide bai deritza. Ta? naikoa ote da ori, Agurain'i bere izen eder ori baztartuta euskeraz ere Salbatierra esaten asteko?

Bi aapaldi geiago baditu Santillana'ko Markesaren Serranilla onek, baiñan ez dute gure arretarik merezi, bertan, ainbeste gustatu zitzaion neskatx aren edertasuna goratu ta birgoratu besterik ez bait du egiten.

Gure Emakumezkoen goratarre ori maiz ikusiko dugu emendik aurrera. Oso atsegiñak izan bait zitzaizkien gure neska lirain eder politiak erbestetik Euskalerrira etorri zitzaizkigun atzerritar guztiei.

Azkeneko galdea: ¿Euskalduna ote zan Santillana'ko Markesa? Atzerrian jaio, eta noizbeinka bere jatorrizko Euskalerrira etorri, atzerrian bizitu zan beti ta...

Alagutziz, euskeraz ezertxo ere ez bazekian, naiz Salbatierra'ko Jaun izan, gaizki ibilliko zan bere erri artako jendearekin arremarik izateko, aguraindarrak euskaldun osoak bait ziran XIV mendean.

Lategi'tar Bixente

EUSKOTRENEK ERRUA?

Auto-istripua izan nebala-eta, aspaldion trenean ibili bear izan dot ara eta ona.

Orrek upealango aukerea emon deust Bizkaiko Txorrierriko eta Urdaibaiko trenbideen egoerea uretik ikusteko.

Egoerea dinodanean, trenbide orren garbitasunari daragoit.

Ikaragarria da sastarretan trenbideotan eta euron bazterretan dagoan loikeria. Jenteak ara botako, jakina. Eundazak tona sastar batu leitekez eurotan: plastikozko ontziak, latak, tetrabrikak, zigarro paketeak, beste edozelango plastikoak... amaiezina da ango sastarren zerrendea.

Negargarria.

Saskeldo eta ugerdoz beteta daukagu erria, bai orixe! Ezin leitekez, bada, sastarrok nozik beinean batu, aor luza-roan agiri-agirian itzi bearrean?

Sastarrak ara botatea EuskoTrenen errua ez dana argi daukat baina, nire eritxi apalean, areek batutea bai badana euren ardurea eta betebearra, edo beste era batera, trenbideak eta trenbideetako bazterrak beti garbi eukitea.

Iniaki Martiartu (Bakio)

Gaztearen ugerdoa

Ez deritxot bape ondo gazteren batek edo batzuk Deustuko San Pedro eleizako ormetan egindako azken pintadeari, ezta aurreko beste edozineri be.

Ez dot uste norberaren eritxia edo eritxi-askatasuna adierazoteko danon ondare istoriko-arkitektoniko dan Deustuko San Pedro eleizea alan, ganora barik, loitu, laskitu bear danik.

Deustuarren ezaugarri zein ikur kutuna gizaldietan izan dana eta gaur egun be oraindinokarren alantxe dana, oker ez banago.

Ganera, pintadeak dirauskunez, gazte izateagaitik «arro» ei dago egilea. Egon bear ete dau arro orrek deustuarrai kalte

egin deustelako be? Ez deutso bape lagundu beraren elburuari, askoren asarrakuntzea biztu baino.

Euskeraz dirausku diarausukuna pintada orrek, ekarri ete deutso euskereari orrek aldekotasunik? Ezezkoan nago, euskerearen prestigioa makaldu baino, loikeria, zentzunbakokeria, ugerdokeria euskereagaz identifiketan dan ezkeron.

Aldekotasunik baino, jentea uxatu, gazteen eta euskeraren izenean, ganera. Badakit egileak ez daukazana bear diran besteko potroak bear dan lekuan laskikeri orren egile agirian agertuteko. Ugerdo aiakoa!

Iniaki MARTIARTU

EDUR

Peru'k ba-ekian nortzuk ziran bere ondatzaillak baiña, egunen baten oartuko ziran ustean, ez ebazan salatu gura izan. Bakez igaron izan zirean iru-lau illebetez eta bein, iluntze baten, basotik etxerantz zaldigaiñean etorrela, zeozker ikaratuta uste bako zalapartadea egin eutsan zaldiak, eta jausi, ta iztar azurra ausi ta zapladaz beterik geratu zan Iberterte'ko Patxi Bekaitz.

Zubialde'ko Joanes Lapur, barriz, lapurretan itzi eben auzoko etxe baten eta etxeokak abiau ebanean, bildurrez arrapaladan joiala zurubilletik (eskillaratik) beera jausi eta eskumako besoa ta saietzak ausi ebazan. An be Patxi Bekaizti eroan eban lez, bizkarrean artu-ta etxera eroan eban.

Astelenean, Peru'k berak, atondu bear izan ebazan, bere aurka erruki barik ekin eutsen gaixaojo biaik. Eta orraitio, konturatu egin izan ziran euren ari, Peru'ri, egin izan eutsiezan kalteakaz eta guztiz damututa eskerrak «Jaurti ta muxturak ausi bear jautxaguzak orri, betiko ondatu daiten.

Illuntzean solotik etxerantz etorri oi zan bide zidorrean lokarria jarri eutsen alde batetik bestera, ten-tenean lurretik arra batera, jauso ta betirako gogoan izan eitekean igurdaldia izan dagian. Aldameneko sasi-ostean egozan, zelatari gaizkin biak...

Illunabarra zan eta beti lez nasai etorran Peru etxerantz illuntzean, atxurra sorbalda ebal, gogaro onez kanta bat ezpanetan ebal eta usterik gitxien ebanean, plaust! zapart egin eban eta buruz-aurrera, era txarrean, jausi eta konorterik barik, geratu izan zan.

Arik ordu-erdira, konorteratu zanean, diadar bat oguzi eban eta ugazabaren zaratea entzun ebanean Etzai etxeok txakurra eldu jakon eta aren ausi ta intzirietara emaztea eldu jakon eta etxera eroan eta zauriak garbitu eta atondu eban. Azurrik ez eban ausi baiña bai maillatua ugari eta bekokia ta aurpegia odolez beterik.

Zelaiburu'ko Peru, beargiña ta gizon baketsua zan, alper egoterik ez eban egiten eta, ortuari ederrak eta soloetan arto, indaba eta abar ugari izaten ebazan. Emaztea be andera mazal eta zintzoa, txukun eta garbi zaintzen ebazan etxe-inguruak. Pozik eta zorionsu emon eutsezan, biak, eta alkar besarkaturik, aurrerantzean bakez eta pozik bizi ziran, alkarrerri lagunduz.

Edur

Jose'k ixillik entzuten eutsezan irain guztiak eta alako baten jaurti eban irrintze bat, oratu eutsen bieri paparretik eta burua-

kaz alkar, indartsu, jo-eragiñik, tabernako atetik zear, urrun jaurti ebazan, guztien barregarri. Guztiak geratu ziran arrituta eta pozik. Eta gaizkin biek lotsatua, amurruz beterik alde egin eben taberna-ingurutik.

Tabernan izan eben igurdaldiaz eta lotsariaz, luzaro iraun eben gizartera agertu barik, baiña arein gogoetan ez ebillan asmu onik: «Zulaiburu'ko Peru'ri, egundo aztuko ez jakon igurdaldia egin bear jautxaguk»- esan eutsoen alkarri. Eta egitada zital eta mingarria asmau eben. Atzillotu ta zigorkadaz ibitutea be otu jaken, baiña, gero, min aundiagoa egin leikion egitada santarra asmau eben.

Bizi izan ziran, ba, euren umetxuakaz, baserriko bake santuan, aurretikoeri ikasitako ekandu eta oitureri zintzo jarraituz, iñorentzat egite txarrik ez asmo txarrik barik.

Areiñetik urrun barik, ba-ziran, auzoan, debeku bako gizatxar bi, Ibarretxe'ko Patxi, ezizenez Bekaizti, eta Zubizarreta'ko Joanes, ezizenez, Lapur; bata baiño bestea gaizkilleagoak. Gorroto ta bekaitz aundia eutsoen Zelai-buru'ko Peru'ri eta, beti ebizan ari, Peru'ri, zer kalte egin asmetan: Ortu-aririk onenak oztu egiten eutsozan eta enpaiduak lorrinduta itzi; kerixa-ondoak, okaran-ondoak eta abar, garaunak oztu eta adarrak ausita izten eutsezan, kaltea ugari egiñez.

Euren emazteak andera onak ziran eta alakorik egin ez egien alegiñak egiten eutsezan, baiña alperrik.

Larunbata illuntze baten, eleizaldeko tabernan sartu ziran. Areik sartu ziran, guztiak ixildu ziran eta, Lezaburu'ko Jose'ri adarra joten asi jakozanean: «Ikusten dok zelan edaten jokan, andreak emongo jeutxan diru apurren bat egarria kendu jagikan... Gixajo ori egarri be izango zoan eta... Aspaldion etxoan dirurik izan tabernako-ta».

Balendin Aurre Apraiz.



M^a Dolores Agirre
OMENALDI EGUNA
OTSAILAK 7 ERREZILEN

EGITARAUA

GOIZEAN:
12.00etan: Meza liñaki Beristain Arantzazuko frailea eta Errezilgo semeak emango du bertako parrokan.
Ondoren: Oroitarria bistaratzea. Aurrerakua, txistulariak eta bertsolariak (Loidi Saletxe eta Unai Agirre)

ONDOREN:
14.00etan: OMENALDI BAZKARIA BORONDEGI jatekxan
Menua: 22 euro
Izena emateko azken eguna otsailaren 5a
Tel.: 943 151728 (Mertxe/Arantza)

BAZKAL GARAIAN
Bertan egongo dira:

- Udaletxeko agintariak: liñaki Oiartzabal eta hainbat ordezkari.
- M^aDoloresen seme-alabak, bere ikasle izandako eta berarekin antzesle izandako hainbat lagun. Bere familiako hainbat ahaide.
- EGAN euskal literatur aldizkariko arduradunak.
- M^a Dolores Agirre eta Euskal Antzertia liburuaren egile den Patri Urkizu.

Bazkal garaian liburu hau doan emango zaie bazkalkideei.

- Hainbat sorpresa: M^a Doloresek egindako antzerki laburra: *Aukeraren maukera eta azkenean okerra* (10 minutu), hitzaldi laburrak.
- Bertsolariak: Loidi Saletxe eta Unai Agirre.

ANTOLATZAILEAK

ERREZILGO URBERTZITATEKO UDALA

EGAN Kultur Aldizkaria Euzko Lehen Aholkariaren Arduraren Ekartera

48N. SALMOA: JESUSEN LENENGO BOST IKASLEAK

Salmo berriak kantatzeko baina!

(1)

Jaun-goi-ko Aita mai-te zai-
tu-gu ze-ru lu-rren E-gi-lla Jain-Ko
se-me-a, mai-te zai-tu-gu gu-ti-
on Sal-ba-tzai-lla - a Jaun Es-pi-ri-tu San-tu-a
ze-ra a-lai-ta-sun e-mai-lla - a gu-re
a-ni-man Se-na-rra ze-ra po-za
sor-tzen lan-gi-lla - a

1

Jaunak ipiñi zuan Birjiña
berriz oso indartuta,
ta atera zan Nazaretetik
aingeruak lagunduta
erri txiki urrekoetara
jakinduriz argituta.
Naigabetuak eta gaixuak
jartzen zitun sendatuta.

2

Ebanjelista Joan Santuak
da idatzi etzuana,
baiñan bera zan San Andresekin
Jesusen billa juan zana.
Joan Bautistan ikaslea zan

Andresekin zeguana,
eta Andresek simon anaia
eramán Jesusengana.

3

Salbatzailleak begiratuta
berari zion esana:
«Zu zera Simon, Jonan semea
Pedro deituko zerana».
Au gertatu zan Judean ta zan
Galilea zijuana;
billatu zuan santo Pelipe,
ta Jaunak: «Ator Nigana».

4

Pelipek deitu natanaeli
ta zion esandakoa:

nola billatu zuen Mesias,
Jesus Nazaretekoa.
«Ortik onikan erten al leike?»
zion erantzundakoa.
Entzun ondoren aitortu zuan
«zera Seme Jaungoikoa».

5

Autxek ziran bost ikasleak
Jesusen lenbizikoak,
erakutsi bear izan zien
Jesus Maixu zerukoak.
Itzlari eta bataiatuaz
ziran agertutakoak,
Eleiz berria sortzeko ziran
an aukeratutakoak.

6

Ama Birjiñak Jesusen berri
aingeruz jakiten zuan,
bost ikasleak zitualako
eskerrak eman zituan.
Betiko Aitak eskatu zion
Birjiñari an orduan:
«Seme Jesusi lagun eiozu
animak sartzen zeruan».

7

Erantzun zion: «Danon Errege,
gure bizitza zerana,
ar txiki bat naiz, baiña eskeintz
dizut nere biotz dana.
Jesusen orde z ilko nitzake,
au da deseo dedana.
Baiañan, Aita, Zuk lagun eidazu
betetzen zure esana.

8

Misteriozko fedea zeukan
Jaunak erakustekoa,
ikasleari esana zien
zala Seme Jaungoikoa,
Aitagandikan atera eta
munduan jaiotakoa,
beti birjiña zan Amagandik
gorputza artutakoa.

**49ª JESUS'EK ERAKUTSI
ZIEN BERE AMA**

1

Bearrezkoa zan ikasleak
bere berri jakitea,
esana zien komeni zala
Ama au ezagutzea,
birjiña eta ama zalako
errespetoz tratatzea.
Bost ikasleak eskatu zien:
«Nai genduke ikustea».

2

Salbatzaillea ikasleakin
juana zan Nazaretera,
erakutsiaz fedeko gauzak
ta Ama erakustera.
Ama Birjiña aurreratu zan
etxea preparatzera,
jatekoak ta lotarakoak
lekuak ondo jartzera.

3

Birjiña jarri zan belauniko
Jesus etxean sartuta,
eskatu zion bedeinkatzeko
lurreraño auspertuta.
Adoratu zuan Seme Jauna
jakinduriz aitortuta,
ta ikasleak gelditu ziran
arriturikan poztuta.

4

Bost ikasleak belaunikatu
ziran Birjiñan orduan,
eskatu zion bedeinkatzeko
seme artuaz munduan,
Ebanjelista Joan santua
eskeiñi zan lenenguan
serbitzeko ta seme artzeko;
Birjiña ain maite zuan.

5

Ama Birjiñak bost ikasleak
bere etxean artuta,
Joan Santua birjiña zanan
eskeintza aukeratuta,
danari jana emana zien
Birjiñak preparatuta,
Jaunari jana serbitzen zion
Aak belaunikatuta.

6

Erretiratu ziran gau artan
danak gaua pasatzera,

Salbatzaillea joan zan Amaren
otoitz-lekua zanera.
Jaunari bere oiñetan Ama
biurtu zan auspertera,
eskatu zion: «Barka eidazu,
es-kastu naiz serbitzera».

7

Jaunak lurretik jasorik Ama
esana zion onela:
bizitza eta osasun ona
betirako ziradela.
Amak eskatu bataiatzeko,
agindu zin bezela,
Jaunak bataiatu zuan Ama,
aingeruak an zeudela.

8

Aitak itz egin zuan esanaz:
«Au det alaba maitea».
Seme Jainkoak: «au det nik Ama;
nai dit lagun egitea».
Jaun Espiritu Santuan itza:
«Au da nere emaztea».
Birjiñak eman zizken eskerrak,
zala doaiez betea.

**50ª JESUS IZAN ZAN
EZTAIETAN**

1

Egun aietan Galileako
Kanaan-en zebiltzala,
Ama Birjiña ta Jesus Jaunak
bost apostolu zeuzkala,
beren lengusu laugarengiak
an esposatzen zirala,
deitu zieten eztaietara
Erregen eguna zala.

2

Salbatzaillea baiatua
urte bat zan egunean,
danak juan ziran eztaietara
Jaunaren gogo onean.
Esposatuai itz egin zien
otoitz egin zuanean,
sakramentu jarri santutzeko
Eleiza Santan mendean.

3

Birjiñak ere lagundu zion
Jesusi otoitz egiten,
eta aurrean jarri ziena

ixilikan zuen jaten.
Amak Jaunari esana zion:
«Ardoa aitu konbiten».
Erantzun zion: «Neri ta zuri
zer digu orrek egiten?»

4

Oraindik ez da eldu nerretzat
eskatzen dezun ordua».
Kristo Jaunaren erantzun au zan
misterio aundikua.
Birjiñak argiz ezaguturik
denbora zala eldua,
agertutzeko Seme Santuan
birtute Jaungoikozkua.

5

Au da Birjiñak serbitzariari
Orduan esan ziena:
«Egin zazue nere Semeak
ordenatzen dizuenak».
Lur-ontzi aundi batzuek zeuz,
zuen oitura berena
eztaietan da serbitutzeko
aietan bear zuena.

6

Salbatzailleak agindi zien:
«Bete urez oiek danak».
Serbitzariak bete zituen
egiñaz bere esanak.
«Orain atera ortik ardoa,
probatu lenengo danak».
Ardo on ura probatu zuan
apaiz buru zeguanak.

7

Probatutzean esana zion
nobioari pozgarri:
«Gizonak jartzen due lenengo
ardo ona gustagarri,
eta edanda daudenen gustoz
ona ez dana ekarri;
zuk gaur alrrebes egin diguzu
ona azkenean jarri».

8

Mai-buruan zegon apaizak
etzekian gertatua.
Jesus ta Ama zeuden lekua
zalako bajunekua.
Baiñan ondoren zabaldua zan
ura ardo biurtua;
agertua zan Jaunaren aintz
ta izan zan sinitua.

IRU BELAUNALDIREN ARTEKO TENKA (2n.saria)

Aitona Luxio eta billoba Joxemari elkarrizketan.

Aitona Luxio'k bere bizimodu guztia artzantzan eramana du, goi menditan zear. Orain seme zaarrena, Jon, Joxemari'ren osaba, dabil eginkizun orretan. Aitona berriz, zaarsari-tuta patxarotsu baserrian bizi da bee larreetan.

Udaldiko opor aldia dala eta, alaba Asun etorri zaio aitoniari Donostia'tik bere familiarekin egun batzuk igarotzeko asmotan. Kale zuloko zoko usaiak utzi, eta arto, belar, garo eta loreen usai gozosa artzera. Joxemari'k, Asun'en semeak, aitoniari, Aralar goi mendira joatea eskatu dio, osaba Jon, amaren neba, an dagoenez, aitona bere sasoi guztian lantoki izan duen txabolara.

Ni mendigoizale naiz, eta bide berean topo egin degu.

Orrela ordu t'erdiko bidea egin eta gero, Amezketatik abiatuta, txabola aurrean, lasai, exerita daude biak. Joxemari Unibertsidadean asiko da urrengo ikasturtean. Bakoitzak ain bizimodu desberdiñaren ikuspegitik, izango dute elkarri adierazteko iritzi ugari.

Aitonak onela dio:

- Oso umetandik asia nintzan baserri lanetan. Eskolara zortzi urte bete arte joan nintzan. Geroztik baserriko lana eta artzantza zer diran ondo asko ikasia naiz. Bizimodu latza, latzik baldin bada. Etekin motzekoa. Esku batekin irabazi eta besteak eraman bizi bear bagenuen, eta xoxik ikusten ez. Beraz, larre motxean azia eta ezia naiz. Gaur egun txabolak, gure onek bezala, aurrerabide ederrak artuak dituzte. Argi indarra, panel oriei esker, eguzkiaren eragiñez. Butanoa otorduak prestatzeko, eta oea ere obexoagoa. Eta gazta eta gaiñontzeko esnekiak saltzeko orain leen baiño erraztasun geiago dago. Bideak ere errazturik daude eta Lan Roverra'rekin eroso egiten da beetik txabaloraiñokoa. Nire garaiean berriz, mandua eta bidetxorra. Amabost egunetik bein beera jaisten giñan, jantzi zikiñak uztera eta garbiak artzera. Aldi berean otorduak egiteko jakiak eroatera. Igandeetan, Igaratzako balelizatxora joaten giñan. An Aita Alberto, benediktarrak, Meza Santua ematen zuen. Lazkao'tik oiñez igotzen zan. Eta kristautasunari buruz, meza bukatuta ere, elkarrizketa ederrak izaten genituen fraile on arekin. Nik dakidan pixka, berari esker.

- Fedea sakontzen orrelaxe ornitu giñan; eta erraz, ustez, sinisten genuen. Gaur berriz gero eta zalantza geiago sortzen zaizkit. Orduan, esan oi izan dana, ikazkiñaren fede sakona genuen. Gaur, ordea, erdi bidean aurkitzen naiz. Ez daukat eskola aundirik, baiña Jainkoak emandako burmuña ortxe darabilkit itzulunguruka, atsedetik gabe, eta ortik sortzen zaizkit, nai eta nai ezta ere, zalantzak.

- Aitona, gai orretaz nai badezu zerbait itz egin dezakegu. Ni ere fededun naiz zu bezalaxe. Baiña beste bide batez artua naiz kristautasunaren elikadura. Teologia ere ikasten bait degu ikastetxean.

- Joxemari, billoba maite: Gure gorputzeko aragi au, azken batean edo ezur utsetan gelditzen da edo erre egiten dute. Eta orrela, nola berpiztu berriro...?

- Aitona: Nik ulertzen dedanez, ikasitakoaren arabera, nire aalmentxoan irixten dan neurriraiño, gizakia illezkorra da arimaren aldetik. San Paulo'k grekeraz "soma" adiera erabiltzen du. Aragia eta espiritua erabilli orde. "Ni neu"; euskeraz nolabait esateko. Beraz, nik esan bear banu, aragia il eta Jainkoaren aurrera pizteak ez luke adierazi nai izango gizakia gorputz berarekin azaltzen danik. Bere osotasunean bai, sentiberatasunaren aldetik. Bere nortasun osoa sentituz, alegia, bizi omen daiteke amaierarik gabeko beste mundu zaballean. Kontuan izanik, bakoitzaren izana Jainkoa'gan datzala. Beraz, berpizte ori ez litzateke izango arrazoiaren bidez, itzez itz artzekoa. Ain gai sanonetan jarduteko, Apostuek era berezia zuten Berri Ona erakusteko. Garaiean garaiko pentsamoldeetara egokitua. Beraz, bertakoen kulturaren eta ulermenaren arabera eraturik Jainkoaren misterioa fedearen bidez erakusten saiatzen ziran. Eta gaur -egun apaizak ere berdin, guk aal degun neurri txikian eta gure motzean obekienik ulertzeko. Arrazoi utsaren bidez ezin bait degu Jainkoa'ren osotasuna ulertu. Beraren neurriraiño gure ulermena zabaltzea ezinezkota zaigu. Gizonak ez bait du ulermenik Jainkoa'k adierazi lezakeen guztia artzeko... Eta gure jainkotasuna barnean billatu bear degu. Arima landu alegia. Jainkoa'ren misterioa ez da ortik kanpo dabillen zerbait. Jainkoaren irudira egiñak izanik, barnean daukagu Beraren eragiña.

- Eta nola ulertu Jesukristo Jainko dala, Joxemari.??

- Jainkoaren irudia, ludi onetarako, Jesukristoren bitartez agertzen zaigulako. Eta orrela, fedearen bidez, ludi onetan Jainkoa'ren azalpena Jesukristo bera degula, ondo uler dezakegu. Eta leengora noa: Arrazoi utsez ezin bait dira ulertu misterio auk. Gure barne muiñetara jo bear, eta or fedea degu bidelagun, ori gabe bestela galdurik goaz. Jesus'en kontzientzian Jainkoaren ekintzak artzen duen sakona, beti izango da guretzat misterio.

- Eta ori gure ulermen txikian bada ere nola uler dezakegu?, Joxemari.

- Onela izan daiteke aitona: Jesus Jainkoaren agerkundea dala esaten digu gure fedea. Jesús, bere irakaspen, eriotz eta berpiztearekin, Jainkoaren agerpena da, eta bide batez, gureganako Jainkoa'ren maitasuna. Eta Jainkoak bere nortasuna

orrela agerturik, lagunurkoarekiko gure portaera nolakoa izan bear duen adierazten digu.

- Beraz, Joxemari, fedea ez da Txindokiko gaillura bezalakoa, goia jo eta zanpatzen dana. Fedea geure eginkizuntan, billaketa da. Zalantza ere fedearen bidean sor litekeen zerbait da. Fedearen gaillurra, maitasuna da, eta or Jainkoa'rekin egiten degu topo. Eta orren arabera bakoitzak bere sinismena ekintzetan landu bear du, eta azken batean sinisten ez duenarentzat ere, Bibliak balio osoa du, mundu ontarako azaldu bait dira orko irakasketak. Eta kristauok: justizia, pakea eta lagun urkoarenganako maitasuna zaintzen degun neurrian, ondorioz, Aita Gurea otoiz egiten degunean, Jainkoari emandako itza betetzen arituko gera. Ekintzarik gabeko sinismenak oker bidea artzen bait du fedearen billaketan.

Gure aitona Luxio'k eta billoba Joxemari'k atsedendaldia artu dute bere elkarriketan, eta gosaltzera doaz. Leorte galanta agiri da inguruan, uda leorra dijoa, eta geienetan berde margo ederrez azaltzen dan Aralar, orituta dago, ura bear. Joxemari'ri entzun diogunaren arabera, gure sinismenak ere, leortuko ez bada, fedearen bustia bear; Jainkoa' ren gan sinismena, alegia; bestela abere utsak giñateke.

- Billoba maite, emen Aralar'en baguenen ni baiño zaarago zan artzaia. "Juana Gorri", zuen bere izengoitia. Ark lanak bukatuta, txabola aurrean, beso zabalik jarrita, errosario santua errezatzen zuen egunero. Ikazkiñaren fedea ere sendoa izan daiteke Teologia askoren bearrik gabe. Euskaldun fededun izenekoa, orrelaxe sortua degu. Eta fedea azken batean, itxaropena da, eta orrek bizipoza dakar... Gaur ori aipatuta, askok eta askok par egingo lukete. Badirudi Erria, neurri aundi batean, gure aurrekoen jakintza, oitura eta senismenekin austen dijoala; eta bide orretatik urte askotako lokarriak galdu egin daitezke. Illargira joan dan gizonak, jakingo al du aurrerantzean Jainko-bidea billatzen ???

Eta aitona Luxio'k onela darraio:

- Gure zaarren esaera, oitura eta sinismen batzuk datozkit gogora:

"Eleiz barruan familien illobiak daude eta gaiñean argizaria"

"Argia eleizara eramatea fedea da. Argi ori fedea da. Jesús bera, argia da."

"Eta zertarako du arimak argia ? Biderako, zeru-biderako".

- Orrela eta beste era askotara sendotzen zuten fedea gure aurrekoek, teologia askoren bearrik gabe, dio aitona berriro.

Ortik pixka batera, gaur jardunean dabillen artzaia azaldu da, Jon, Aitona Luxio'ren seme zaarrena, eta Joxemari'ren osaba, ama Asun'en neba. Eta, a zer nolako poza artu duen biak ikusita!! Bakardadean bizi bait da. Jai giro aundi bat ospatuko dute irurak, eta bereala sukaldaritzan astea doa Jon. Ardien "beek," zakurtxoaren zaunkak eta aizearen ufa-dak, batera sortzen duten doiñua, artzantza giroko eresaldia dirudi...

Bazkaldu dute, bapo! Eta berriz ere elkarriketa degu, orain iruren artekoa.

Osaba Jon'ek onela dio:

- Zer berri illoba Joxemari kale alde orretan? Nola dituzu gurasoak ? Zer dio ama Asun nire arrebak ?

- An danetik, osaba. Gu ondo gera Jainkoa'ri eskerrak. Baiña bada ez bear ugari gure gizartean. Batzuk diru putzutan. Eta beste batzuk bizi eziñean. Bestalde, geranak generalako, eta orri eustea nai diogulako, euskaldunak alegia, andik eta emendik bada ika-mika pranko; nondik urratuko gure nortasuna.

- Beean naizenean, Joxemari, jakinten ditut Telebista bidez edo, orko goraberak, eta emen irratia egukita ere geienetan itzalita daukat.

- Ez dezu ezer askorik galtzen, osaba, bestela batzutan irakitan jarriko ziñake. Estadu nagusiko agintari aundiak badute lan ugari, gure leendakariak esaten dituenak zapuzten. Erdi aroan bizi omen gera, gure nortasunari eustea nai diogulako. Ez dute aitortu nai gure Erri txiki onek eman dituenak, ematen dituenak, eta emango dituenak, Jainkoa lagun!! Ekonomia eta Industria bidez, Estaduko leenengoak omen gera, zenbakien arabera. Euskal Erriko gizaki bakoitzaren aberastasuna- dalako "renta per capita" ori, Estadu osoan leenengoak omen da. Eta kanpotar askok beren jaio lurrean terratenienteak ukatu ziotena, emen akurkitu badute ere, nekez aitortuko dizute eskerrona. Alderantziz, gure nortasunari eustea dala eta, gu bertakoak, omen gera txarrenak, endakeria dantzaten omen degu, eta besteen eskubideak ukatu. Amaika ikusteko jaiok gera!!! Ala ere egiari zor zaionez gero, ezin ukatu, danak ez dutela berdin jokutzen. Esker on ori azaldu, eta beren burua bertako sentitzen dutela aitortzen dutenak ere, asko eta asko dira. Eta pozik dabilta, beren umeak euskera ikasi dutelako. Bejondeizuela!!! Zuek etxerako.

- Bai Joxemari, beste Erri aldeetan ez dute guk ainbat arazo izaten beren nortasuna zaintzeko eta maitatzeko. Eta guri sortzen dizkiguten ukapenak gainditzeko, gure Euskal Erriak burubetza bear, eta orren bitartez lan sakona egin emen bizi geran danon alde, iñori berea ukatu gabe.

- Bada, osaba Jon, ori dala eta, leendakariak agerpen bat aurkeztu du. Ustez Estaduko legeak austen ez dituenak. Ala ere, makiña bat politikari asaldatuta dabil. Bera besterik ez dute ikusi nai, eta beraiek bezala pentsatzen ez duena, arerio biurtzen dute, eta benetako demokratik, berak dirala esango dizute. Istoria obeto jakin bearuko lukete. Eta orrela gogoan izan nondik eta nola sortu zan "euskal arazo" izenekoa. Eta orretarako ezin aaztu: Austriarrak eta Conde Duque de Olivares. Felipe Vgna. Borboitarrak. Carlos IVgna. eta Godoy. Fernando VIIgna. eta Espoz y Mina. Isabell IIgna. Espartero generala, Maroto lagun zuelarik. Alfonso XII gna. eta Cánovas del Castillo. Oriek danak, burubelarri ondo asko saiatu ziran indarraren arrazoiaz euskaldunen Lege Zaarra austen

eta bidebatez Euskal Erria'ren eskubideak eta nortasuna deuseztatzen. Batez ere 1839 eta 1876 bitartekoan lotzen da euskaldunontzat istori negargari ori.

- Bai Joxemari. Gure aurrekoek ordurarte Lege Zaarra zuten, Erriarengan sortutako oitura zaarrak lege bihurturik. Errialde bakoitzak bere burujabetza zuen, eta Batzar Nagusiak ospatzen ziran gaurko Parlamentu gisa. "Demokrazia" itz orren adierazpenik ez bazuten ere, bere edukia aspaldidanik barnean zeramaten gure asaba zaarrek. Abraham Lincoln'ek "demokrazia" itz orren adierazpena leenengo aldiz azaldu zuenerako, XIX garren gizaldiaren bukaeran, orren aurretik, esan bezala, gure asaba zaarrek itz orren edukia ederki asko betetzen saiatuak ziran beren ekintzetan.

- Bai osaba. Euskal Erria' ren demokrazia bazan gaur daukagun adiñekoa. Borobillagoa ere bazala, esango nuke. Kontuan izan bere edukia: Politikan berdintasuna, legearen aurrean danak berdin. Politikan askatasuna; eta ez zan iñoren kaltetarako lege berezirik. Iritzietan askatasuna, bai Batzar Nagusietan eta baita ere beste gaiñontzekoetan. Bada, lege bihurturiko Oitura Zaar oriek, danak deustatuta gelditu ziran, ta orrekin Euskal Erriak bere burujabetza galdu zuen, esan degun bezala, 1839an eta 1876an. Ikas bezate bada obeto etsaiek, ain maite duten istoria leenbizi, leendakariak esan duenarekin asaldaturik ibilli gabe.

Gai orri buruz, aitona Luxio isilik dago. Alako batean ekin dio ordea:

- "Primun vivere, deinde philosophari" Gure erriko bikario zaarrak maiz aipatzen zuen esaera. "Leenengo bizi, gero filosofatu". Politikak ere itzontzi pranko ema izan ditu. Goregi begiratu eta eguneroko bizimoduari dagozkion arazoez aaztu. Nik nire garaikoa aipatuko dizuet. Politika gordiñetik ez nuen somatu izan baserritarron arazoetako konponbide aundirik. Lan eta lan, burua lurrari makurtuta, eta ala ere ezin bizi. Gu bezalakoa, leen ala, orain ola, eta gero ez jakin nola! Ezin ukatu, ordea, politika arazo batzuetarako bearrezkoa dala. Ala ere esan bearra daukat, politikariek ortxe ika-mika beren arteko ezberdintasunak konpondu eziñik dabilzan bitartean, enpresariak aurre egin bear izaten dietela egunoro, enpresaren inguruan sortzen diran arazoei irtenbideak egokitzen. Eta ainbat eta ainbat langilleek ere, gorriak ikusten dituztela bizimodua aurrera ateratzen. Gero batzutan gertatzen dana auxe da: Enpresarien lorpenak, beren alde artzen dituzte politikariek. Eta gauzak oker ateratzen diranean, erderaz "coyuntura" itzarekin konpondu nai izaten dira. Eta orrela politikaria beti gailen. Noski, emen politikariek, beste tokitan bezala, danak ez dute berdin jokutzen. Emen ere danetarikoak izaten dira: onak, txarrak, eta nolabaitekoak. Politikarien eginkizun nagusienetako bat, Erriarengan lasaitasuna sortzea izan bearko luke. Eta Erriaren iritzia aipatzen danean, empresariena ere, bereziki, or barnean bear du izan. Eta asi bezala bukatuko det nire iritzia: "Primun vivere, deinde philosophari"

- Bai aitona, arrazoi aundia dezu. Gazteok ere, irtenbideak bear ditugu, ainbat eta ainbat arazo bait dauzkagu geure

etorkizunari begira. Eta politikariek badute non saiatu konpon bideak egokitzen. Arazorik larrienak aipatzeko: Etxe bizi garesti-garestia, langabezia, ume guztientzat aal duten neurriarñoko ikasketak burutzeko egokiera, e.a. Gizartea oroar tira-bira aundietan sartuta dabil: Urduritasuna eta elkar ezin ikusia nagusitu zaizkigu. Jon Etxaide-ren eleberri baten izenburua datorkit gogora: "Gorrotoa lege"...

- Joxemari, billoba maite: Gorrotoa aipatu dezu, eta gerra madarikatua datorkit gogora. Ura bukatuta gero, aal zuenak alde egin zuen atzerrira; eta an errimiña biotzean bai, baiña poliki bizi ere bai. Emen Erri xeea berriz, mixeri gorriak ikusten bertan geratu bear izan zuen. Emen gure gizartean, utsarengatik, salaketa galantak sortu ziran; eta oriekin irabazleak neurri beltzak baita artu ere. Gezurraren indarrez, gizonak eta emakumeak nolanai jartzen zituzten ormaren aurrean!!! Gertaera negargarri oriek orrela izanik, nik ala ere, ez nuen pentsatu izan nire euskalduntasuna galtzeko arrixkuan izango nuenik. Neurri on batean euskera besterik ez det menderatzen, eta erdera ondo jakiteko gosegarritan eman det nire bizimodu osoa. Etxetik irtenda oso motz geratzen bait giñan. Bertako jende askok ere, irripar egiten zigun gure erdera pixka euskal kutsuaz ateratzen genuelako. Alajainkoa!!! Euskera zekien askok ere uko egin zion bere ama izkuntzari. Badakit oker galantak izan ziralako, ikastolak galerazita; baiña bertako askok ere bere errua besteie botatzen zien, euskera galdu edo ikasi ez zutelako. Bitartean, zenbait euskal gurasok zekien izkuntza bakarria umeei itzegin, eta aukeraz ekiten zioten. Donosti'ra Santo Tomasetan joan eta, makiña bat aldiz entzuna naiz - "mira boronos" son muy desconfiados". Euskalerriko semeengandik entzun egin bear orrelakoak. Au dek arraioa!!!

Orduak aurrera dijoaz, eta aitona Luxio eta billoba Joxemari itzulbidea egitekotan etorriak dira. Gaurko aurrerapenei esker ordea, esku urrutizkiñaz, "movillaz", etxera ots egin dute, txabolan gelditzera dijoztela esanez. Bertan geldituko dira irurak. Ez dituzte ordu makalak igaroko, aitonak, onen semeak, eta billobak, oso ondo artzen bait dute elkar. Aralar mendiaren barru-barruan, illunabarreko laiñoa sartzen ari dalarik, txabolpearen babesean, ortxe sentitzen dute, obeto eziñik, gure arbasoen oiartzuna eta arnasa. Itz aspertu baten ondoren, egun betea, benetan!!!, barne-muiñari dagokionez, gure irukotearena.

Larunbata da eta urrengo egunean, Euskal Erria'ren zaindari dan San Migel'en Santutegira joango dira irurak, an ematen duten Meza Santua entzutera. Txabolatik gertuxamar bait dago Santutegia.

Illunabarra, eta kanta zaarrak dioen bezala. "Eguzkia asten da jeitxitzen, jeitxitzen, dizdira ederra zaiola gutxitzen..."

Txabolako tximiniari kea dario

Joxemari Murua Goñi'k "Ganbo"

LAZARRAGA ´REN ESKU-IDAZKIA

GEU ALDIZKARIA

Donostia ´n egin genduan gure liburu baten aurkezèna izan zanetik, illero artzen dogu GEU aldizkaria, Araba ´n euskerea indartzeko asmoa duan illerokoa.

Aldizkari onetan beti izaten dira gauza irakurgarri batzuk, baiña oraintsu irakurri al izan dogu, ZER onen irakurleentzat jakingarria dan albiste bat, Araba ´ko euskeraz idatzia dan lenengo liburuaren albistea.

Euskalerriko Ikastetxe Nagusian irakasle dan Txema Ramirez da albiste au azaltzen dauskuna.

GIPUZKOA ´KO ALDUNDIA EROSLA

Liburua arabar batena eta Araba ´n idatzia da, baiña Araba ´ko agintariak ez dabe agertu liburu au erosteko guraririk eta Gipuzkoa ´ko aldundiak erosi dau, 66 000 euro edo amaika milloi pezeta ordainduta. Ainara Gorostizu ´k damoskuz albiste oneik.

XVI gizaldikoa da eta Araba ´ko euskeraz idatzia

Gizaldi onetan argitaratu zan irarkolan lenengo euskal liburua, Etxepare ´rena, 1545n. urtean, baiña arazoa ez da ori, gaurko gure liburu onek ez daukalako zer-ikusirik irarkola edo inprentegaz, eskuz idatzia da-ta.

Araba ´ko euskeraz dagoala esan dogu. Baiña zein da Araba ´ko euskerea? Ez daukagu gaurkoz erantzunik itaun onentzat.

Alde baten Kanpetsuko Kurutze Deuna erri-inguruan egiten zan euskerea gipuzkoera zan eta euskera au erabiliko eban angoa zan Gamiz idazleak,berau be gipuzkoarra zalako jatorriz.

Beste arabar askok, gaur be bai, bizkaieria darabille, asi Aramaiona, eta Legutiano, Elosu, Zigoitia, Murgia Orduña-inguruetan..

Orain arte Araba ´n euskalki bi erabili dira. Zein agertzen da aurkitu barri dan liburu onetan. Egunen baten azaldu al izango dogu, baiña oraingoz esan lei nastatuta agertzen dirala bizkerea eta gipuzkoerea.

Liburuaren egillea Juan Perez de Lazarraga da (Larrea Torretxeke jauna), jatorriz oñatiarra,Agurain edo Salbaterra ´koa jaiotzaz. Politikan ebillen gizona, armadan erregearen zerbitzaille ibillia. Oñate ´n, Agurain ´en Zaldueño ´n eta abar, igaro ebazan urteak,

Liburu au Madrid ´eko zar-zale batek eukan eta enkan-tean erosi dau Gipuzkoa ´ko Aldundiak.

1564- 1567 urteen artean idatzia da eta 100 orrialde (51 orri) ditu, naizta gaiñeko orriak zapuztuta egon.

Darabilen euskerea oso arkaikoa da.

Lenengo zati baten itz-lauz idazten dau, eta darabilen gaia geienbat mitoloji-girokoa da. Bigarren eta irugarren zatiak bertsoak dira, geienak maitemiñezkoak, baiña bai batzuk laudoriozkoak be eta gitxi erlejiño-girokoak. Azken-aparia eta Maria Magdalena be agertzen dira. Ba dakaz iru poema gazteleraz be. Bere jenealojia bat be badakar liburu onek.

Filoloji-aldetik aberastasun aundi bat dakar aldean eta gure jakitunak or dauke arlo zabal bat ikertzeko.

Joseba Lakarra ´k aztertu dau mamiña eta Borja Aginagalde ´k idazkerea... Biak doguz barri-emoille gai oneri buruz.

Onein ustez liburu aurkitu-barri onek iraultza dakar gure elerti edo literaturara. Izan be, 1900n. urtera arte % 90 idazkik ez dauke balio aundirik literatura aldetik, erlejiño gai eta zeozetarako erabilteko egiñak diralako, baiña 100 orrialde dituan liburu aurkitu-barri onek benetako elertia,literatura, dakar,itz-lauz edo prosaz naiz itz neurtuz edo bertsoz.

Prosazko zatiak artzain-elebarrien takereari eusten dautso. Ez geunkan olakorik bat be euskeran. Eta bertsozko bigarren zatian diran atal biak be elertian balio bereizia dauke, maitemiñezkoak naiz beste edozen gai artzen dabenak.

Liburu onen euskerea ez da Gipuzkoa ´tik Agurain ´era joana, idazlea bertakoa dan lez bere euskerea be bertan erabilten zana da. Ikusi egin bearko da Araba ´ko euskera arkaiko au gipuzkoereagaz ala bizkaiereagaz, naparrereagaz ala Iparraldekoagaz geien lotzen dan .

Perez de Lazarraga orduko jauntxu bat zan eta orduko oiturak azaltzen dauz baiña norentzat, nondik ibilli zan... Olako itaunak eta antzekoak egin bearko dabez aztertzaileak.

Amaitu baiño len zalantzazko itaun bat: Ez da izango, gero, baten batek eta oraintsuago idatzitako guzurrezko liburu bat?

Ezetz diño Joseba Lakarra ´k, eta au gaiñeratzen dau: Baten batek egindako “falsifikaziñoa” ba ´litz, ori egin dauanari oorezko matrikula emon geinkio. Ez, eziña da guzurrezko idazkia izate ori.

OLAZAR ´tar Martin ´ek

GAURKO GERTAERAK

Mundu onetan, gizon/emakume batzuen eginkizunetan, baragarri ta negargarizko gauzak asi dira sortzen.

Gaur eguneko ulermenean, eta billaketarako daukagun tresneriagaz, argi ta garbi azaltzen dalako, guzurrentzat bide onik ez dagoela.

Gaur eguneko Mundu ta Europa guztian bide ori ikus-teko, leen begitu bear doguna, gauzak euren ager-irudira-ko zelan eratu egiten doguzan, euren ondorioan ain etxu-ra txarrezko gauzak agertu daitezcan bigarren.

Zergaitik...? Ludi au..., fisikoa dalako! iturburuen ondorioak kontuan ez eukiteko.

Gaur, gogoratu bear gara, Mundu onetan eta European batez be, berezitasunezko errien aurka, edestitik etorri zan asmakuntza, eta XIX`n gizaldian, espatakaz ipini ziran gaur daukaguzan Laterri-Menperatzaille oneik, gizarteak euren agindutara morroi bezela egon gaitezcan, ez daukala zentzurik.

Asmakuntza ori, beti izan da sasi-jainkotasunezko kai-zar`en jauntxukeria eta ez dakit zelako "EL DESTINO EN LO UNIVERSAL"en gaitik, asmakuntza ori babeste-ko diruaren iturriak euren eskuetan eukin da.

Asmakuntz-orren iturburuko ondorioak, berez gizar-tean, nortasunak ezereztu egiten dauz, gizon/emakumeak izatasun-gabeko ondamendi ondorio batera eroanda.

Or dago! oraiñarte betiko borroka, eta... Ludi onen lege-bidetik, gizartea barriztu egiten dan lez Nortasunez-ko bizi batera beartuta..., beti borroka baten jarraitu bear dogu ?

Ori..., gizon/emakumeetan gaur, daukaguzan arrazoi-bidezko Nortasunaren almenean ez dauka zentzurik.

Orregaitik, bideratuta gagozan leize-zulotik, nai-ta naiez urten bear dogu, gure adimendunezko Nortasunak garraxika eskatzen dauskulako.

Ezin besteko aukera eta tresneria daukaguz, eta arrazoiaren izakizunak azaltzeko, iru adibide aurkeztuko dau-tsuedaz.

a).- Mundu onetan, ez da gauza ona, gizartearen bizi-tza bideratzeko`en aitzakiagaz jauntxukerien maixutasu-nean, ordeko diruaren kontrolak eukitea, Nortasunean, zentzuzko naimen edo borondateak beartu egiten dabezala, norkeriaren aberats-tentaldi atea guztiz zabaltzen dabezelako.

Eta bide ori ez da egokiena, gaur gure gizartean ikus-ten dan lez, lapurketa eta guzurrezko bidean kokatzen gai-tulako.

Gizarteentzat, oso txarrak dira orren ondorioak, ezber-dintasun aundiak sortzen dabezelako. Batzuk aberastasu-nera goralduta eta geienak onbear ta txirotasun bizi baten gaitz-etsita.

b).- Ez da gauza ona be, XIX`n. gizaldian asi-ta, gaur, oraindiño gudaren keiñuagaz beartuta daukaguzan Late-riak Europa guztian eukitea.

Arduraren arloa, erdirakoi edo baterakoiaren eskuetan diralako, argi ikusten dan lez.

Laterri onein jaurkintzazko asmakuntzaren sorburuak, ordeko diruaren kontrolagaitik datoz, sal-erosle aberats-jauntxuen gogoetan, beti izan diralako errien arteko zer-gak ez ordaintzea, euren aberastasuna indartzeko.

Orren ondorioak, Laterriko-aberri aundiagoak egitera beartu ebazan, berezko errien Nortasunezko izkuntzak, oi-turazko jakintzak eta sinismenak guda-indarrean zapaldu-ta.

Eta onen ondoriorik negargarriena, Mundu onen gizar-tean asieratik Nortasunera beartuta dagoena, Berezko Nortasuna babesteko, edesti guztian borrokan ibili bearra.

Nortasunezko gizartearen antolakuntzan, beste goi-maillako elburuak lortzeko, danon babesera begira, ados-tasunean egin bear diran gauzak dira. Danok zeaztasuna-ren egi-bidean, berbearen borondatea daukagulako, Nor-tasunik galdu gabe.

Ardurazko lotsagizun aundian lortzen dira gauza orreik.

Ludi onen izatasuna, Nortasun-gabekoa izan balitz, Sortzaillearen beste burutakizun bizi-arau baten egokitu-ta, bizi izango giñalako.

d).- Asken baten, berezitasunaren babeserako, menpe-ratzaillearen naaztutako joko-bidez eta berezko erritarren artean banakuntza lortuta, ezberdintasunezko alderdiaren antolamenduan ezarri gara.

Geienak, Nortasunaren edo berezko Aberriaren alde. Norberaren etxeari begira.

Gitxienak, eta ezberdintasunean margoztutako inguru-ko arau baten, erdira-nai edo baterako jaurgo-zale diranak (constitucionalistas). Geienean menperatzaillearen guzu-rrak ta amurrakerien bidez nastuta.

Arrazoaia, berezko nortasunaren alde kokatuta dagozan gizon/emakumeetan egongo da beti, Ludi onen lege-barruan jokatzcan dabelako.

Baiña guzurra, erdira-nai zaleen artean kokatuta

dagoana, eta gaiñera, besteak beartzen dauzan sinismena da.

Orregaitik, euren berekoi griñagaz alegintzen gaitun siñeskeria iruntziteko, nai-ta gozokituta egonda, oso latza da.

Or daukaguz, Rouko Barela, Aznar, Oreja, Iturgaitz eta PP`ko talde guzti ori, beti zaunka, txakurak egiten dabezan keiñuen antzera. Euskalerra`ri keiñatzaille, ez dakit zelango zori-txarrak agertuko jakozan, 1.839`an eurak zapaldutako Nortasunezko askatasunaren billa ibiltan bagera.

Baiña gaurko denborak, lenagokoak ez dira, demokraziagaitik era-bat lotuta dogozelako.

Mundu onen gizarteak, BAKEA lortu gura dau, eta Euskalerra`riak zetan esanik ez.

Orregaitik, diruaren ordaiñetan, ekonomia, eleizaren gizarteko arauetan, Laterriaren jaurkintzan eta gaurko legeak bakerako aurkezten dabezan arazoak, euren lekue-

tan ezartzeko, Europa ta Mundu`ko gizarteak, “Demokrazia” elburu lez artu dau.

Ez daualako gura beste ikaragarrizko munduko gudana-gusirik.

Orregaitik gaur Europa`n eta Euskalerra`ri batez-be, ez dira bear eta ezin dira izan, gudak edo ikarabideak.

Euskaldunak badakigu zer dan etenbakoak izatea, bear dogun gauza bat lortu gure dogunean, eta geiago gure NORTASUNAREN ASKATASUNA lortu gura badogu.

Badaukaguz bear diran egokitasunak EUSKAD`ren ASKATASUNA lortzeko. Baiña danok alkartuta, norke-riak eta lotsagabekeriak urrunera botata, EUSKAL-NORTASUNA ABI-ARAZIAN IPINI DAIGUN.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZA`n 2.004`an EPAILLA`ren 24`an



LEGE ZARRA: URIETAN ATXILLOTUAK

I legea: Urietan atxillotuai lagundu

Lenengo esan eben: Urietako bizkaitarrak lurralde lau-koai kalte aundiak egiten dautsezela, orregaitik egiten dabe lege au: Uritarrak erritarrai kalterik egiten ba`dautse eta kaltetuak dei egiten ba`dau, lurralde lau-ko bizilagun guztiak kaltetua edo atxillotua izan danaren alde jokatuko dabela eta uria egindako kaltea bardintzera beartuta dagoala eta urietakoak zuzen dagozala agertzen ba`da, bizkaitarrak ordaindu dagiezela kalteak.

LEGE ZARRA: EIZAN NON EGIN DAIKEN

I legea: Bizkaitarrak atera daben eizakiari jarraitu leikoe iñoren lurretan

Lenengo esan eben: Basurde zein artz zein basautzen billa mendi ta euren lurretan ibiltan dira bizkaitarrak eta eizakia aterata gero beste mendi edo solo batzutara joan leiteke, eta eztabaidak sortzen dirala, orregaitik agintzen

dabe lege au: bere lurlean eizakia atera dauan bizkaitarrak eizakia beste baten lurretara sartzen ba`da, eiztaria aren lurretara sartu daitekela jarraitzeko, eta ori iñok ezin dai-kela galerazo, eta beste batek atera dauan basuerdea edo basautza iñok ilgo ba`leu, eta atera dauana urren-eguerdia baiño lenago etorriko ba`litz, aurrean ekarri dauanari oso-osoan emon bear jakola, baiña beste barru-tian atera ba`da, barrutiaren jabeak il legi eta beretzat izango da.

LEGE ZARRA: ELEIZ ZAINDARITZAN BIZKAI-TARRAK BABESTU

I legea: Eleiz-zaindaritzan babestu bai

Lenengo esan eben: Bizkaia`n eleiz-zaindaritzako monastegiak, batzuk erregearen babesean dagozala, beste batzuk dibisarienak dirala. Aita Santuaren eta erregearen onirritxiaz, eta ori orrelan auxe agintzen dabe: bizkaitarrak babes daitekezela monastegi orreitan iñok oztoporik jarri barik.

II legea: Eliz-zaindaritza kentzeko, buldak ekarri leiz, eskubidea nok

Baita esan eben: Bizkai'ko monastegi ta eleiz-zaindaritza guztiak aitonen semeak daukez, jaun aundiak edo dibisariak emonda eta erri-gizon batzuk Aita Santuagandik buldak ekarri dabezela eta guzurbideko eskutitzak be bai, monastegien jabetza bizkaitarrai kentzeko eta ortik kalteak datozela, orregaitik agintzen dabe: Bizkaitarrak euki dagiela jabetza ori eta aurka buldarik edo bidegabe-ko eskutitzik ba'lego, men egin dagioela eta ez bete.

III legea: Erri-gizonak epaitzeko eskubidea gotzaiñak noiz

Baita esan eben: Kalaorra ta Kaltzada'ko Gotzaiñak eta onen kargudunak Bizkai'ko erri-gizonak epaitzera ausartzen dirala jaun aundiari edo erri-epaikariari dago- kien eskubidea kenduz. Ori dala-ta jaun aundiagana jo dabe Gotzaiñaren eta bere laguntzailleen aurka be eraba- gi leikela eta ori baiezteko eskutitzak artu dira, eta gotzai- ñari bialdu be bai bizkaitarrak noiz epaitu leikeezan argi- tuz. Orregaitik ezarten dira emen eskutitzok:

Lenengo errege-eskutitza: Doña Juana'k Kalaorra'ko gotzaitegira eta Bizkaia konderrira. Fede katolikoaren arazoetan izan ezik, ez salatu iñor. Madril'go urian , 1499n.´eko epaillaren 27n. egunean.

Bigarren errege-eskutitza: Gotzaiñak ez dagiala erri- gizonen aurka ekin, kasu batzutan izan ezik.

Doña Juana'k eta beronen seme don Karlos'ek: Kalao- rra ta Kaltzada'ko gotzaindegia, eta Bizkaia konderrian zagozenoi...

III legea: Noz ez dan eskomikurik irakurri bear

Baita esan eben: Bizkaitarrak ortuarien eta igaleen lapurretakaitik eta soloetan sartzeagatik eskomikuak eta zensurak irakurten dirala, eta auxe agintzen dabela: Esku- titzik ez daitela irakurri irakurten dauan bakoitxari seireun maraiko zigorra ezarten jakola, bide konponketarako. Eroan bear dana eroan dagiela erriko epaikariaren aurrera.

IV legea: Gotzaiñaren epaiketak non egin eta zen- bat kobrau

Baita esan eben: Eleizbarruti onetako gotzaiñak eta Bizkaia'n kargudun diranak epaikariak bialtzen dituela pekatuaren arazoak garbitzeko aitzakiaz, eta sarritan lapurkeriak egiten dabez, eta epai-aldiak eleizetan eta leku baztertuetan egiten dabezela, latraurik ez lege-gizo- nik bizkaitarrak euki barik, eta erri-arazoak epaitzen be ausartzen dirala, eta okerkeri orreik kentzeko auxe agin- tzen dabe: Bizkaia'n Gotzaiñaren fiskal-kargua eukiteko ez daitezela fizkal bi baiño izan, bat korrexidorea dagon lekuan eta bestea ordezkari nagusia dagon lekuan. Eta

Jaun aundiak Gotzaiñagaz batera izendatu dagizala fiskal oneik eta sariak jasoteari begira, kargu orretako eskri- bauak erreñuko lan sarien araudia bete dagiela.

LEGE ZARRA: BIZKAI'RA DATOZEN JANARIAK

I legea: Bizkai'ra datorren janaria ez daitela atera, kasu batzutan izan ezik

Lenengo esan eben: Bizkaia menditsua dan lez, bizkai- tarrak ogirik eta beste bizikairik ereiten ez daben lez, ogia eta aragia eta arraiña kanpotik ekarri bear izaten dabez eta betidanik izan dabe eskubide ori, eta itxasoz ekarri eta Bizkaia'n lurreratzen diran lez, erbestetar batzuk Biz- kai'tik atera egiten dabez kanpoan saltzeko, eta erria orreik bagerik geratzen da. Ori dala-ta auxe agintzen dabe: ogia ta ardaua eta janariak Bizkaia'n lurreratu dira- nak, beste leku batera eroaten iñor ez daitela ausartu eta ori egiten dabenen ontziak eta gaiak galdu dagiezela, erdia Bizkai'ko bideak konpontzeko eta beste erdia sala- tariarentzat eta epaikariarentzat erdibana.

II legea: Itxas-ontziak Bizkai'ra dakarren janaria erdia lurreratu bear dabe

Baita esan eben: Bizkai'tik kanpokoa dan itxas- ontziak janariakaz Bizkai'ra datozenean, erdia Bizkaia'n leorreratu bear dabeala. Eta nai daben lez saldu dagiala. Eta beste erdia eroan dagiala, jaun aundiaren arerio ez diran errietara. Edo ontzia kaira sartu barik zortzi egunean ibilli daitela, itxas-ontzi ori edonok artu eta beretu dagia- la, eta gero leorrera etorri eta saldu dagiala. Eta etxerik gordeteko emon dagionak amar milla maraiko zigorra izan dagiala, erdia bideak konpontzeko eta beste erdia erdibana salatariarentzat eta epaikariarentzat.

III legea: Bizkaira janariakaz datozen ontziak, beste gai batzuk eroan

Baita esan eben: Bizkai'ko kaietara janariakaz datozen ontziak emen arerioak aurkitzen dabez eta ez dira sartze- ra ausartzen, eta ortik bizkaitarrak kalte aundiak izaten dabez. Iñor ez daitela ausartu janariak dakazen ontziak menperatzen eta zerga barik saldu dagiezala euren jana- riak eta doazenean emengo burdiña edo beste edozer eroan dagiela, jaun aundiaren arerioentzat izan ezik, eta agindu onen aurka egiten dana, utsa izan daitela.

IV legea: Bizkaitarrak etxean saldu lei debekaturik ez dagoana

Baita esan eben: Edozein bizkaitarrek bere etxean ogia, ardoa ta okelea edo beste edozein jaki zergarik bage- rik saldu leikela, baita erosi be.

Olazar'tar Martin'ek

ATE BAT DALA-TA

Kalera urten dot etxea buru ganera jausten euki dodalako, labazomorruak eskatzean zear, neberea utsik,otz aundiegi orma orreen artean eta parkerutz joan naiz .Txakurrak zaunka egin doste eta jaubeak kataia teinkatu dau ixildu dagien; laugarrenkoa topa dot,aupadea egin dautsagu alkarrerri, eguraldi ederra dagoala esan dogu alkar topatu dogunean; beaeren gaiñera begitu dot eta txindurriak ikusi dodaz larrosa-landarea geldi-geldika euren etxerutz eroaten, zatika. Eurak or ekinean bearean, pentsau barik baiña zentzunez beteta, neu barriz berbaz josita baiña zentzunik bakoa, ezer egiteko indarrrik bakoa, labazomorruak eskatzetik kentzeko gauza be ez nazela.

Buelta bat emoten nabillela ate bat topa dot, aurretiaz sekula be ikusi bakoa,or sarri ibilli arren. Atea topa dot, jakindurearena akaso, indar-edabea gordetzen dauana izan zeikean. Atea, eta or Atearen ondoan eskukadea giltz, zerraillea aundi euki dau Ateak, giltzak barriz txiak.

Bertatik pasuan ibili dan neska bat urreratu jat, begietara begitu doste lotsati lez, kaixio nik, kaixio neskeak; denporea berbaz bete dot apur baten, joan ez daiten-edo; zeintxuk berba izan direan ez dakit, etorri jadan guztia, berba guztiak esan dodaz mariñelak sarea jaurtitzen dauan moduan, eltzeko esperantzaz; a atea Atea dala be esan dotsat. Giltzeri errepara dautso, eskuan euki dodaz artean, arekin zer egin otzen jakola esan doste, politikak direala, etxeko orman ipiñiko dituala, giltz zarrak gustaten jakozala. Zozetako egon dira or, zer edo zergaitik, baiña... indarrrik euki barik, jakinduriarik baga zelan erabilli eskukada giltz, ezagutzen dodazan zerrailak ezin zenbatu badira? Eta ezagutzen dodazan zerrailak, direan guztien artean ezin igarri badira. Zertarako nai izan dot nik ori?

Erlojuari begitu dotso, ia ortik beti ibiltzen naizen itandu doste, bera sarri ibiltzen dala, astean birritan edo irutan be sarri. Bueno,agur berak; bajoidan!! zu! deitu dotsat; giltzak emon dotsadaz eta eskerrak emon dostez, izenak alkarrerri esan, erlojuari begitu,urreratu eta musu bi, mutil ona nazela. Joan bear eban, joango zan alan edo bestelan eta erlojuak joateko ordua ebala esan dotsonean joan da; bestea erregaloa izan da.

Begiradea altza,neskea joan eta eskatzeko labazomorruak etorri jadas burura, Atea, Atea neure aurrean, giltzak emonda eta ni... bertan jarri? zergaitik ez? Akaso zozer jazoko zan... Barruan zeozerk esan doste alperrik

nevillela, jarten, ez nintzala inora be joango, jarri arren neure mamuak ondoan egongo zirela, jarri arren inora ez noala,ateak zarratuta badagoz ez direala ain errez idegiten, ez dala naikoa begira paratea.

Danak bearra eskatzen dau,danak eskatzen dau, ez dago kantsatea beste erremediorik,baina zer edo zergaitik ez dot neure burua orretarako gauza ikusi, zer edo zeerk esan doste bear besteko indarrrik ez daukadala. Orduan? Orduan ondoan para eta etxoin gertau arte gertaten bada edo begira gelditu bestela, besterik barik begitu, begitu zelan zaartzen naizen, zelan igarotzen dan denporea, zelan jausten direan jausi bearrekoak eta zelan galtzen dauan indarra neure ankeak eta zelan neu be jausten nazen beste gauza guztien erara,zelan zaartzen garean danok, zelan ugartzen gaituen urak, zelan ugartzen naizen arinago parata egotea erabagita.

Segidu ikusten eta Damua zelan datorren ikusten izan dot, nik ez dot ekarri, bera etorri jat, eta ikusten izan dot zelan jarten dan neure parean eta zelan ozten dosten gorputza, baina, gorputza be ez naz ni, zer bat da, neurea, bai, baina ez da ni, eta otzitu egiten izan dau neure burua berak be, neure morala oztu dau, igartzen izan dot orduan tentetu be ezin egin neiana,igartzen izan dot Damua neure parean jarri danean tentetzeko aalmena be oztu dostela, igartzen izan dot.

Jarrita egotea be bear neketsua izan da artean; tentetzeko barruko egitureak jarrea bear dau deskantsua artzeko, tentetzeko aalmenik barik eta tentetzeko egiturarik barik jarrita egoteak be nekaten izan nau.

Miñak etorri jadas gerrian gora, lepoan zear eta barruak etzuteko esan doste, jarrita egoteari kostata eusten izan dotsat; Damuak betazalak pisutsu egin dostez eta nai barik be ia paradiso modura ikusi dot etzutea, beaeren ganeak erakutsi doste beren oztasuna eta gogortasuna, lepuak esan doste or otzitu egin behar nebala,min artu bear nebala eta bitartean anak altzatzen asi, lepoa beaeren ganera urreratu, eskuak buru atzean gurutzatuta, jagi eta ibilli bearko nintzakela esan doste barruko bazter galdu batek zearo etzuten nintzan bitartean.

Damua be etzun da neure onduan;barru-barrutik boz batek txilioka deutso, jagiteko mesedez, damuaren onduan ez etzuteko; begiak zarratuta laztandu dosten burua Damuak, bagiak zabaldu eta or egon da neure onduan; beste iñor ez da egon, beste inork ez nau lagundu eta bakarrik sentidu nazenean malko batek alde doste,aal

dodanik eta ondoen nagoala, neure ekintzen ondorio zuzena dala alan egotea, biok alkarren ondoan beste inor eta ori izan bada neure naia, ez mugatzeko ori nairobi. Entendimenturik ez dot euki orduan; ezpanak beren atzamarraz zarratu lez egin dostez nik ezer esan orduko; urreratu egin da baina ez dau berotasunik euki beste guztien modura; minaren puntea atara dau eta ezpanak apur bat estututa umeldu ditu, beren ezpanak neureen kontra sentidu dodaz, musu gozo eta otza emon doste; eskua neure sama atzetik pasa dau, arnas-estua bota dot. Bagiak zabaldu eta or egon da neuri begira eske lez. Arnasea lasai eta zabal artu dot eta ostera be urreratu ditu beren ezpanak... eta oraingoan ikara andiz izan bada be neure ezpanek be emon deutse musua, esku bat pasa doste bekokitik okotzera, leuna, otza.

Begiak atzera zarratu dostez: nire barruan ideia batek arnasea eutsita euki doste ortik aldeteko garrasika, baina beren min otza sentidu dot neure goiko ezpanearen eta ideiarri garrasia ito jako; geldi-geldi eroan dau neure belarrirutz eta musukatzen asi jat aginkada motel eta ikaratiaz lagunduta, itxi egin ditut orduan neure estutasun guztiak ur izoztuetan urtezen. Beren naierara nengoan. Belarriko kanpoko alderditik miña lotsati lez pasatzen izan doste; burua okertu dot belarria berari begira geratu dagien, neure burue emon; zirkulu txikiak egiten urreratzen joan da erdira, otza sekulako andiena izan da; belarriko zulorutz urreratzen sentidu dot eta beren miñak ikutu dauanean begiak zabalzabal egin jatez. Sentitzen izan dot baina ikusi ez, bere uleak arpegian zear baña zeru urdin argia baño ez dot ikusten izan; eskua zama ostean baina marmol utsa egoan; mmm esan dau, edo entzun dot, ez dakit, mobidu be ezin egin nintzan, begiak ezin sinistu eben inor ez egotea or eta gorputzak ez eban sinistuten iñor ez ikustea begiak. Buruak altzatzeko esan doste baña gorputzak kasorik ez dau egin, bertan geldi-geldirik egon da plazerraren munduan jausita: uleak arpegian zear sentidu dodaz atzera, eta musu txikitxuak bekarririk begira; ertzean emotean begia zarratu dot edo zarratu jat, ez dakit, beren naia beteteko baño ez naz egon. Belarrirutz buelta zan sama ingurutik pasatutakoan, ostera miskau eustan belarriko kanpoko aldea aginkadatxukin lagunduta; erdirutz urreratu da; beren eskuaren otza paparretik, alkondara barrutik, lobuloan eta zulotik sartu eban miña eta hotza, eta miiñaz batera bera osorik barrura sartu da, eta paparretik erabillen eskuak dana bete dau, eta izan da otza kanpotik, eta barrua be otzaz bete doste; begiak ostera be zabaldu jadaz, laño artean lez ikusten izan dot dana; orduan sutara salto egin da be ez nintzan berotuko; jagi egin naz, edo egin nau, edo egin nabe, ez dakit, ez dot erabagi.

Azkenean joan egin naiz Atearen ondotik, ez dot pasa, ez dot jakin zergatik pasa nai izan dodan. Buelta

bidean ia inor ez dot ikusi, eta inok ez nau ikusi; danari zaunka egiten dautson txakurrak be ez nau igarri; etxera sartu eta bezperako arrosa berotu dot, berogaillua be piztu dot, berogailluak ez nau berotu, arrosak apur bat bai; ez dot leidu izparringia, edo akaso bai, ez dakit atzo leidu neban ala gaur izan dan; arrosak apur bat berotu nau.

Etxean komuneko papera palta eta erosten joan bear eta orduan bai, orduan txakurrak igarri nau eta zaunka egin doste, orduan neuk ez dot igarri. Supermerkatura joan eta papera artu, lerroan parau eta kutxatik pasa, betiko legez dana. Kutxazaiñak begiradea altza eta ikusi nau eta arratsaldeonak emoten sorbaldatik oratu doste, buelta emon dodanean ez nau solta, parkatzeko esan doste eta begiradea jeitsi. Ez dotsat ezer esan,joan egin naiz besterik barik.

Kalean baloi batek jo egin nau; umeak futbolearen ibilli dira eta batek urrunegira jaurti dau; arek gooolazua esaten izan dau besuak gora altzata.

Atezaiñak mesedez bueltateko eskatu doste; artu dot eta apur bat urreratuta bueltaka bota dotsate beaeren ganean zear. Nik eurekana pauso bat emotean danak emon dabe bat atzera; baloia atetik sartu da kanpo barrura baña danak urrundu dira baloitik eta geldiro geratzen joan da kanpo erdian zearo gelditu dan arte. Batek be ez dotso eldu; danak urrundu dira baloitik niri lepua emon barik;gola sartu dauanak samea erdi zarratuta nigarrezedo baketan ixteko esan doste eta neuandik ondio urre zamar egon dana aringa-aringa asi da aldeten, beragaz beste guztiak batera.

Etxera buelta naiz aalik eta ariñen; atzera zaunka txakurrak; sartu eta komunera joan naiz papera ipinten, ispilu aurretik pasa naiz ikaratuta, or egon da neu jotzen naben argi izpien isladea, begietara begitu, iturria zabaldu eta arpegia garbitu, jarri komunean, kaka egiteko ez baiña, non edo non jarteko baño ez, jarri eta azulejoak zematzen asi naz burua zer edo zertan erabilteko, zemat gora eta zemat albora, biderkatu eta pentsa zemat izango zirean danera, gero banan banan zema danak ia egia dan...

Telefonoa daukat baina ez dau jo, bizilagunak daukadaz baina ez ditut ikusi, telebistea daukat baina ez nau bete, irratiak berba egin dau baina ez niri, lotara joan naiz eta orain ametsetan nago, futbolearen lagunakin, uts et bi galtzen gabiltza, aulkian jarrita nauke eta neu naiz irabazteko dagoan itxaropena, baina ez dot nai entrenadoreak ataratzetik badakidalako ataraten nauanean ixartuko nazena.

ANES ARRINDA! AGUR!! EGUN AUNDIRA ARTE!!

Anes Arrinda il jaku: 2004-05-19.

Idazle ugaria ta sakona, erderaz naiz euskeraz!!!

Izlari bikaiña eleizan naiz errian!!!

Euskal jakintzaren bultzagillea!!!

Abade zintzoa ta erri-zalea!!!

Beartsuen laguntzaillea!!!

Euskerazaintzaren eta euskalzale guztien izenean: Agur!!!

Anastasio Arrinda Albizu

(Deba'ko parrokoa izana)

(Goian bego)

Deban hil zan atzo, 2004ko maiatzaren 19an, 91 urte ebazala, Eleizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartu ondoren.

**EUSKERA ZAINZA,
EUSKERAREN-AKADEMIAK
ETA BERE SENIDEAK**

Dei egiten dautsue GAUR, OSTEGUNA, DEBA'ko parrokian, arratsaldeko ZAZPIRETAN egingo den hileta-eleizkizunera. Aldez aurretik eskerrik asko.

Oharra: Gorpua Deba'ko eleizan izango da ordu bi orduz.

EUSKERA ZAINZA



Anastasio Arrinda Albizu

(Abadea)

(Goian bego)

Deban hil zan atzo, 2004ko maiatzaren 19an, 91 urte ebazala, Eleiza Amaren Sakramentuak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartu ondoren.

Hileta

GAUR,
osteguna, 20

Arratsaldeko
7,00retan

DEBAko
Nuestra
Señora de
la Asuncion
Parrokian



EAJ-PNVren

DEBAko

URI BURU BATZARRAK

Dei egiten deitsee bere alderdikide, alderdizale eta herritar guztioi hileta-eleizkizunetara, bere arimaren alde OTOTITZ bat eskatuz.



Anastasio Arrinda Albizu

"Don Anes"

(Sacerdote)

Funeral

(Q. E. P. D.)

HOY,
jueves, 20

7,00
de la tarde

Parroquia
de Nuestra
Señora de
la Asunción,
DEBA

Falleció en Deba ayer, día 19 de mayo de 2004, a los 91 años de edad, habiendo recibido los Santos Sacramentos y la Bendición Apostólica de Su Santidad.

Su hermano, Donato (sacerdote); primos, Paulita Albizu y Pedro María Albizu; demás familiares.

Nota: HOY JUEVES, a partir de las CUATRO DE LA TARDE el cadáver será expuesto en la parroquia de Deba.

Domicilio: Hondartza 14, 1º.

Deba, 20 de mayo de 2004



Anastasio Arrinda Albizu

"Don Anes"

(Abadea)

Hileta

(Goian bego)

GAUR,
osteguna, 20

Arratsaldeko
7,00retan

DEBAko
Nuestra
Señora de
la Asuncion
Parrokian

Deban hil zan atzo, 2004ko maiatzaren 19an, 91 urte ebazala, Eleiza Amaren Sakramentuak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartu ondoren.

Bere anai, Donato (abadea); lehengusu-lehengusinak, Paulita Albizu eta Pedro María Albizu eta beste senideak.

Oharra: Gorpua Debako parrokian egongo da, GAUR EGUENA, arratsaldeko LAURETATIK aurrera.

Helbidea: Hondartza 14, 1º.

Deban, 2004ko maiatzaren 20an